

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016.

Joan den ekainaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100aren jabetza duen.

Bi erakundeen **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizatuak ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira eta 2016ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 99 milioi eurorena dela balioetsi da.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek, SAk **zuzentasunez bete dutela** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen **duen lege arautegia**; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 8,7 eta 82,9 milioi eurorenak, kontratazioaren xedea zatikatuaz. Gainera, espediente batean (bi angiografo digital biplano hornitu eta egokitze lanak) ez da justifikatu premiazko larrialdi egoeragatik izapidetzea.